

Kantu-jirak

Gasteiztik Baionara, kaleak kantuz eta euskaraz

Badira duela urte dezente sortutako kantu taldeak, baina gehienak azken bospasei urtetakoak dira. Gehiago edo gutxiago, hiru ardatz dituzte: kalean kantatzea berreskuratzea, euskal kantagintza kultur ondare gisa zabaltzea eta euskararen erabilera bultzatzea.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

GASTEIZEN, 2009an, Korrika bukatu bezperan abiatu zen Gasteiz Kantuz. Pare bat urte lehenago egin zen lehen ahalegina, baina porrot egin zuen. 2009an, hileko lehenengo larunbatean, 12:00tan, hasi ziren ateratzen, eta euskaldunak, euskaltzaleak, erdaldunak eta abeslariak elkartu ziren. Kandi Anda Euskaraz Bizi elkarteko kide gisa azaldu zen Gasteiz Kantuz sortzeko egin zuten lehen bilerarekin. Plazan euskal kantak abesten ibiltzea zertarako den garbi dauka: “Kalean euskara oso gutxi erabiltzen da Gasteizen eta Gasteiz Kantuzekin lortzen duguna da bi orduz euskaraz bizitzea. Baina egia da betikoarekin ibiltzen garela batzuetan, alegia, ‘gaztela-

niaz egiten ez badugu jendea minduko da...’”. Ordea, kaleetako kantaldien ardatz nagusia euskara da, eta gero datoz kantak eta dantzak. Erdaldunak ere hurbiltzen dira kantura, eta euskara jakin ez arren, euskaraz abesteko ahalegina egiten dute. Haietako tartean direnez, komunikazioa zein hizkuntzatan bideratu erabaki behar izaten dute. Adibidez, kalean direla, kantatik kantara zer abestuko duten eta zein orrialdetan dagoen esan behar da. Beste batzuetan azalpen luzeagoak ematen dituzte jende multzoaren aurrean. Batzuetan erdaldunek gaztelaniaz egiteko eskatzen dute. Kandi Andak adierazi digu ahalegin guztia egiten dutela bi orduko tartea euskararen

espazioa izan dadin eta horretarako bide hauek jorratu dituzte: abestia zein orrialdetan dagoen euskaraz esaten dute, eta behar izanez gero, hatzez adierazi. Azalpen luzeak euskaraz ematen dituzte, eta eskatuz gero, laburpena gaztelaniaz. 200 e-posta dituzte, bi zerrendetan banatuta. Euskaldu-

Behean, ezkerrean, Lizarran Kantuz herriko jaietan. Behean eskuinean, Gasteiz Kantuzeko taldea. Aldamenean, Baionan Kantuzeko CD baten azala. Baionan Kantuzek 15 urte egin ditu aurretik eta aitzindiriak dira.



GASTEIZ KANTUZ-EK UTZIA



LIZARRAN KANTUZ-EK UTZIA



BAIONAN KANTUZ-EK UTZIA